



Ondasunen eta zerbitzuen sailkapen berria (ECOICOP)

2016ko Famili Gastuaren Inkestak (FGI) kontsumoaren Europako sailkapen berria txertatu du: **ECOICOP** (European Classification of Individual Consumption by Purpose). Sailkapen berri horrek hedatu ohi den informazioa egituratzeko erabiltzen diren gastu-partzela batzuen xehakapen handiagoa eskaintzen du.

Sailkapen berri horrek kontsumo-gastuak kodetzeko irizpideetako batzuk aldatu ditu. *Etxebizitzen oporretarako alokairuari* dagokiona da nabarmenena; orain arte, gainerako etxebizitza-alokairuekin batera sartzen zen *Etxebizitza* taldean, eta sailkapen berriarekin ostatu-zerbitzutzat hartzen da *Jatetxeak eta Hotelak* taldearen barruan.

Aldaketak informazioaren bilketan

Informazioa biltzeko garaian zabaldutako gastu-sailkapen bat erabili izan da (**ECOICOP/Bilketa**); galdeketetan gehitzen dena da eta bere kodeak, zenbaitetan, ez datoz bat ECOICOP kodeekin.

Hala, 2016. urterako informazioa biltzeko erabilitako gastu-sailkapena ECOICOPen egokitzapen bat da, bereizketa gehigarriak barneratzeko baliatu dena. Hala, beste gai batzuen artean:

- elikaduran bereizi egiten dira kafea kapsulatan eta kafea aletan; eta garbituta eta kontsumitzeko prest dauden letxugen eta abarren nahasteak biltzen dituzten poltsak eta aleka erosten diren letxugak, eskarolak eta abar.
- etxebizitzan, bereizketa bera egiten jarraitzen da etxebizitza nagusiko gastuen eta beste etxebizitza batzuetako gastuen artean, eta banakatu egiten da, irakaskuntza dela-eta, etxebizitzaren alokairuko gastua,
- altzarietan, banakatu egiten dira haurrentzako altzariak,
- osasunean, bereizi egiten dira produktu homeopatikokoak eta produktu farmazeutikoak,
- irakaskuntzan, ikaskuntza ez arautuko gastuak (akademiak, irakasle partikularrak eta antzekoak) irakaskuntza-mailaren arabera biltzen dira, baina ikasketa arautuetatik bereizita,
- ostatu-zerbitzuetan, bereizi egiten da ostatua irakaskuntza dela-eta,
- beste ondasun eta zerbitzu batzuetan, bereizita jarraitzen du ehorzketa-aseguruak.

Aldaketak informazioaren hedapenean

Web taulak hedatzeko **ECOICOP/EGF** sailkapena erabiltzen dugu, funtsean ECOICOPen kode jakin batzuk taldekatzean datzana informazio zabalagoa eskaintzearen. Informazioa biltzeko sailkapena eta argitalpenean erabilia bereizteko, **COICOP/EGFren kodeei T bat gehitu zaie amaieran, 01111T adibidez.**

Gainera, T kode horiek beren kodeei jarraitzen diete, hau da, ez datoz bat ECOICOPen kodeekin, tauletako kodeak osatuak (hutsunerik gabe) eta korrelatiboak izateko zehaztu baitira.

Serieen berrikuspena

ECOICOP sailkapen berria barneratzearen eta informazioaren bilketako aldaketen ondorioz banaketa bat sortzen da serieetako batzuetan, eta 2016. urteari buruz argitaratutako datuetako batzuk aurreko urteetakoekin doitasunez alderatu ezin izatea eragiten du horrek.

Arazoi horregatik, beharrezkotzat jo da gastu-partzela batzuetako datuak, 2016aren aurreko urteei buruzkoak, berrikustea. Hala, 2006-2015 urteetako emaitza xehakatuak berrikusi beharko dira horretarako, serie historiko berri bat berekin ekarriko duena.

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf:+34-945-01 75 00 Fax:+34-945-01 75 01